

ZEANURIK ELEUTERIO GOIKOETXEA OMENDUKO DU EGIRIÑAOKO ATERPEAREN (GORBEIA) MENDEURRENEAN

Uztailaren 9an, larunbatean, 100 urte beteko dira Eleuterio Goikoetxea zeanuriztarrak Egiriñaon (Gorbeia) mendiko aterpe-ostatua inauguratu zuenetik. Gertaera hori gogoratu eta inizatiba horren sortzailea omenduko du Zeanuriko Udalak. Gaur egun aterpearen jabeak diren hiru mendi-taldeen ordezkariak ere parte hartuko dute Egiriñaoko ekitaldian: *Arnotegi Mendi Taldeak*, *Bilbao Alpino Clubak* eta *Juventus S. D.-k*.



Mendizaleak Eleuterioren txabolan, Gorbeian, 1922an. Ojanguren-en argazkia.

ere uda aldean Euskal Herriko zein inguruko probintzietako tontorretara txango ugari antolatzen zuten mendi elkarteek. Kirol honen izaera ez lehiakorra eta egoera fisikoa nahiz morala hobetzeko ariketa egokia zela azpimarratzen zuten garai hartako idatzi batzuek.

Gorbeia mendiak erakarrita, Arratiako tranbia hartu eta Zeanurira edo Areatzara hurbiltzen zen mendizale kopuruari erreparatuz, horren inguruan diru-sarrera osagarriak eskuratzeko aukera ikusi zuen Eleuterio Goikoetxeak, eta 1922ko uztailaren 9an Euskal Herriko lehenengo mendiko ostatua izan zen aterpea zabaldu zuen Egiriñaon, 1.200 metroko altueran, eta Gorbeia gurutzetik hurbil. Horrela, 1926an Mendi Federakundea argitaratzen hasi zen *Pyrenaica* aldizkariaren lehenengo alean honako iragarkia hau azaltzen zen: “*Refugio alpino del Gorbea (1.200 m.) (pensionado completo). Primera hostería-alpina en la Región Vasca. Dormitorios generales, literas sueltas y habitaciones separadas. Considerables rebajas en concurrencias numerosas. Domingos y festivos, misa en la gruta anexa. Pídanse catálogos: Propietario, Eleuterio Goicoechea. Ceanuri (Vizcaya)*”.

Gero eta mendizale gehiago zetorren Gorbeiaiko parajeak ezagutzera; gainera, era honetako irteeretan parte hartzen zuen jende asko goi mailakoa, posibilitate ekonomiko handiak zituena zen. Mendizale horiei Gorbeian egunak igarotzeko aukera eskaintzen zien Eleuterioren aterpeak, bertan babesa, janaria eta ohea aurkitzen zutelarik. Federakundeko 1. bazkidea zen José P. De Duñabeitia y Menchacak zera zioen 1926an: “*Gaur egun, Egiriñaoko aterpe-ostatuari esker, Gorbeian egun batzuk igarotzea oso atsegina eta eroso da, janaria eramateaz eta gaua pasatzeko lehorpea bilatzeaz ez zara arduratu behar eta*”.

Mendeurrena ospatzeko egitarauaren zatirik handiena Egiriñaon burutuko da, aterpearen aurrean, 12:00etan hasita, baina goizeko 09:00etan Zeanuriko plazatik martxa gidatu bat abiatuko da Egiriñaora joateko, San Justo bide tradizionaletik igoz. Ibilaldi honetan nahi duen orok parte har dezake, eta erritmo normalean bi ordu eta erdian ibiltariak Egiriñaora iritsiko dira.

Eleuterio Goikoetxea: aitzindaria

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke.

XX. mendearen hasieran indar handia hartzen ari zen mendizaletasuna, eta batez



Eleuterioren txabola handituta, 1924an. Ojanguren-en argazkia.

1924an aterpe-osatuta berriztatu eta handitua egin zuen Eleuteriok, eta Antonio Ferrer-ek 1927an argitaratutako “*Nuestras Montañas*” liburuan azaltzen duenez, honako itxura zuen: “aterpeak gurutze itxura agertzen du eta honako zerbitzuak eskaintzen ditu: 16 ohe mendizaleentzat eta beste 4 Diputaziokoentzat, jantokia, sukaldea eta behe-sua; hodi baten bitartez Lekuotzeko iturritik ekarritako ur edangarria edukitzeaz gain, dutxatzeko gela bat ere badauka, komuna eta konketarekin”.

Gerra zibilean aterpeak kalteak jasan zituen eta Eleuterio bera, lehenengo kartzelaratua izan zen eta gero deserriratu; guztira zazpi urte igaro zituen herritik kanpo eta aterpeaz bere emaztea, Gillerma Uriarte, eta seme-alabak arduratu behar izan ziren.

1942an Espainiako Mendi Federakundeko Euskal Ordezkaritzak aterpea erosteko proposamena egin zion eta Eleuteriok onartu egin zuen: atal bi erosi zizkion eta hirugarrenarekin Eleuterio bera geratu zen. Federakundeak 10.000 pezeta ordaindu zizkion, beste 12.000 erositako atalak egokitu eta berriztatzeko erabili zituen eta 1943ko uztailaren 11n berrinauguratu zuen. Bien bitartean Eleuteriok eta bere familiak geratu ziren atalarekin jarraitu zuten negozioan.

Eleuterio 1956ko maiatzaren 1ean hil zen eta familiak 1957an *Bilbao Alpino Club*-ari saldu zion bere parte: Guillerma alargunak eta Begoñe alabak sinatu zituzten salmenta-eskiriturak.

Urte berean, 1957an, Federakundeak bere jabetzapean zituen bi atalak salgai jarri zituen: bata *Juventus S. D.*-k erosi zion eta beste *Iberdrolak*.

Beste sasoi batean Eleuterioren txabola izan zenak gaur egun Egiriñaon jarraitzen du, hiru zatitan banatuta, zati bakoitzaren jabeak *Arnotegi Mendi Taldea*, *Bilbao Alpino Club* eta *Juventus S. D.* elkarteak izanik.



Eleuterioren txabolaren itxura gaur egun

Zeanurin ere ospetsua

Mendizaleen artean ezezik, herri mailan ere ospe handia izan zuen Eleuterioren aterpe-ostatuak —herrian “*Eleuterioren txabola*” moduan ezagutua— eta horren lekuko da bere lagunek parranda giroan abesten zioten eta oraindino Zeanurin erabat ezaguna den kanta hau:

*Zeanuritik baraurik
Urtetzen badezu
Gorbeiera orduko
Damutuko jatzu*

*Damutuko jatzu
Damutuko jatzu
Zeanuritik baraurik
urtetzen badezu*

*Eleuterioren txabolan
Gosea franko izango da
Baita bere egarrie
Dalako gizon baragarrie
Eleuterio, Eleuterio,
Eleuterio, Eleuterioren txabola.*

ELEUTERIO GOIKOETXEA: BERE BIZITZARI BURUZKO XEHETASUN BATZUK

Eleuterio Goikoetxea Goikuria, Zeanurin jaio zen 1888ko irailaren 1ean Rotaetxe familiaren jabetza zen Zubiate izeneko etxean eta hor bizi izan zen. Bere aita, Felipe Goikoetxea, Rotaetxetarren administratzailea izan zen eta kargu hori aitarengandik heredatu zuen Eleuteriok. Eraikuntzan eta finka tasatzaile moduan ere lan egiten zuen eta Bilboko portuko obra-batzordeko enplegatua ere izan zen. Auzokideen artean pertsona errespetatua zen, eta sarritan gatazketan arbitraje edo tartekari lanak egiteko deitzen zioten.



Eleuterio Goikoetxea bere familiako kide batzuekin Felipe Manterolaren argazkia.

1915eko urtarrilaren 23an Guillerma Uriarterekin ezkondu zen eta 10 seme-alaba izan zituzten: Andoni, Iñaki, Karmele, Mikel, Arantza, Elisabete, Begoñe eta Jon Aingeru; beste bi jaio eta gutxira hil ziren.

Sinesmen erlijioso sakonak zituen —Zeanuriko “Junta de Acción Católica”ko idazkaria izan zen— eta kultura munduan ere mugitzen zen —“Zeanuriko Dantzariak” taldeko ordezkaria izan zan—.

EAJko kidea zen. 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, boto gehien hartu zituen hautagaia izan zen eta Zeanuriko alkatetza eskuratu zuen: udalbatza osatzen zuten ideologia ezberdinetako 10

zinegotzietatik bederatzik bere aldeko botoa eman zuten eta batek zuriz bozkatu zuen. Beraz, II. Errepublikako Zeanuriko lehen alkatea izan zen.

Gerra zibilean, atxilotu eta Larrinagako espetxean kartzelaratu zuten. Hiru urte eman zituen han; ondoren, deserriratu egin zuten eta Oñan (Burgos) egon zen. Guztira, zazpi urte eman zituen bere herritik kanpo.

Nazionalak boterea iritsi zirenean, Gobernu Zibileko “Comisión Provincial de Incautación de Bienes”-era Zeanuriko udaletik bidali zuten txostenean Eleuteriok buruzko honelako datuak eman zituzten: “(...)durante el alzamiento desempeñó la alcaldía de Ceánuri y el cargo de Presidente del llamado Comité de Defensa que llevaba anejo el de Jefe de Orden Público. Fue separatista siempre y director de esta tendencia en su pueblo y por ello bien visto y consideradísimo en las altas esferas antiespañolas. La solvencia económica del mismo conocida consiste en la propiedad de una especie de Hotel de verano llamada refugio sito en el monte Gorbea que se estima unas 5.000 pesetas y otras 20.000 que se le suponen en metálico y esto aparte de los rendimientos que le dieran sus cargos de administrador de todos los Rotaetxes y su empleo de la Junta de obras del Puerto de Bilbao”.

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke, 1922an Egiriñaon (Gorbeia) Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatua inauguratu baitzuen. 1926ko Pyrenaica aldzkariaren 1. zenbakian honako iragarki hau agertzen da. Aterpeak izan zuen harrera ona ikusiz, 1924an berritu eta handitu egin zuen. Aterpea eraikitzeke zein geroago handitzeko Diputazioaren dirulaguntzak hartu zituen.

Aterpe-ostatutik hurbil ermita txikia bat ere eraiki zuen —gaur egun ere han dago—, Elurretako Amaren ermita, udan igandeetan eta jai egunetan artzainek eta bisitariak meza entzuteko aukera izan zezaten. Zementuzko eraikin txiki bat da, kanoi-bobeda modukoa, mazela arrokatsu batean sartua. 3 x 2,25 neurtzen du eta sarrera-atea inguratzen duen burdinazko hesi txiki batez itxita dago.

1.956ko maiatzaren 1ean hil zen, 68 urte zituela, bihotzekoak jota.

“ELEUTERIOREN TXABOLAREN” MENDEURRENA

UZTAILAREN 9a, ZAPATUA

EGITARUA

09:00etan:

- * Zeanuriko plazan elkartu eta Egiriñaora ibilaldia, San Justotik gora. Nahi duena etor daiteke. Zatoz!

EGIRIÑAON (GORBEIA):

12:00etan:

- * Elkarretaratzea “Eleuterioren txabolaren” aurrean.
- * Eleuteriori eta berak sortutako aterpeari buruzko oroitzapen ekitaldia.
- * Plaka oroigarriaren inaugurazioa.
- * “Eleuterioren txabolan” denon artean abestu.
- * Barauskarria.

13:00etan:

- * Ekitaldiaren amaiera eta Zeanuriko plazara itzuli.

Antolatzailea: Zeanuriko Udala

Laguntzaileak: Joko Alai Elkartea, Bizkaiko Forua Aldundia, Gorbeialde, Bizkako Mendi Federakundea, Arnotegi Mendi Taldea, Bilbao Alpino Club eta Juventus S. D.